

Leioako udalerriko Gizarte Ongizate Saileko Baliabideen Gida





Leioako Udalak kalitatezko gizarte-zerbitzuak bermatzeko erantzukizuna du eta horretarako konpromisoa hartzen du bere gain bere eskumenak oinarritzat hartuta. Zerbitzu horiek herritar guztiei zuzenduta daude haien behar sozialei erantzuna eman ahal izateko.

Badakigu batzuetan herritarrek ez dituztela ezagutzen Udalaren gizarte-zerbitzuak eta haien ezaugarriak. Horregatik, gure ustez beharrezkoa da Leioako Udaleko Gizarte Ongizatea, Osasuna, Pertsona Nagusiak, Animalien zaintza eta Garapenerako Lankidetzaren Arloak, lehen arretarako esparru gisa, eskaintzen dituen zerbitzuen, programen eta prestazio ekonomiko eta sozialen sare zabala eta haietako bakoitzera sartzeko

eskakizunak eta haien erabiltzaileen betebeharrak eta eskubideak ezagutaraztea eta ikusgai jartzea.

Helburu honekin, herritarrei zuzendutako gida hau prestatu dugu eta pertsona baten bizitzan sor daitezkeen beharrei aurre egiteko erabilgarria izan daitekeela uste dugu. Halakoren bat behar duten Leioako herritarrek atzean gera ez daitezen bete beharrek urratsak eta horietara sartzeko modua ezagutzeko beharrezko informazioa jasotzen du.

Horregatik, zuek gertu egon eta zure ongizate pertsonala, familiarra eta soziala bermatu nahi ditugu, merezi duzun arreta eskainita. Horren guztiaren helburu nagusia da udalerriko kolektibo eta pertsona guztien garapen osoa sustatzea.



Iban Rodríguez Etxebarria
Alkatea



Juan Carlos Martínez Llamazares
Gizarte Ongizatea, Osasuna, Animalien Babesa, Pertsona Nagusiak eta Garapenerako Lankidetzaren Zinegotzia

Orr. SARRERA

04

1 // INFORMAZIO, BALORAZIO, DIAGNOSTIKO ETA ORIENTAZIO-ZERBITZUA

05

2 // ADINEKO PERTSONAK

- Etxerako laguntza-zerbitzua.
- ZAINDUZ zaintzaileen laguntza zerbitzua.
- Adinekoen ostatu-zerbitzuak.
- Etxean laguntza kontratatzeko laguntza ekonomikoa.
- Eguneko arreta-zerbitzuarekin lotutako prestazioa.
- Adinekoen etxeak.

06

3 // LAGUNTZA EKONOMIKOAK

- GLL: Gizarte Larrialdiko Laguntzak.
- GL: Gizarte Larrialdia.

07

4 // GIZARATERATZEA

- Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako zaintzapeko etxebizitza.
- Esku-hartze psikosozialeko eta sozioedukatiboko zerbitzua bazterkeria-arriskuan eta mendekotasun-arriskuan dauden pertsonekin.
- Premiako etxebizitza.

08

5 // HAURRAK ETA FAMILIA

- Esku-harte sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzua.
- Adingabekoentzako tratamendu psikopedagogikoa.

08

6 // INDAKERIAREN BIKTIMA DIRENEI ARRETA

- Abegi-etxea (Indarkeriako Biktimen Arreta).

09

7 // BERDINTASUNA

- Berdintasuna.
- Leioan gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzen duten jardueretarako dirulaguntzak.

10

8 // INMIGRAZIOA

9 // ADIKZIOAK

11

10 // GARAPENERAKO LANKIDETZA

- Garapenerako lankidetzak.
- Garapenerako lankidetzak proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia.
- Garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko dirulaguntzak.

12

11 // BESTE BATZUK

- Leioako Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren aholkularitza juridikoa familia, genero indarkeria eta atzerritarren gaian.
- Osasunaren sustapen eta prebentzio arloko ekintzak eta programak finantzatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak.
- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak: Lizentzia- eta erregistro-eskaera.
- Animaliak biltzeko udal-zerbitzua.
- HAA plana: harrapatzea, antzutea eta askatzea.

Baliabideen gida

Gizarte Ongizatea



INFORMAZIO, BALORAZIO, DIAGNOSTIKO ETA ORIENTAZIO-ZERBITZUA

» Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio-zerbitzua

Zertan oinarritzen da?

Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eskainitako zerbitzu honen helburu nagusia pertsonak eta familiak informatu eta orientatzea da.

Zerbitzuei eta prestazioei, eskubideei eta obligazioei buruz **INFORMATZEA**, beharren balorazioa izateko eskubidean, eta hala behar izanez gero, diagnostiko sozialean eta Arreta Pertsonalizatuko Planean (APP) arreta berezia jarriz. Era berean, prestazio eta zerbitzu bakoitzaren kostuei eta onurei buruz informatzea, baita eskaeraren bilakaerari buruz ere.

Pertsonaren eta bere testuinguruaren beharren eta gaitasunen **HASIERAKO BALORAZIOA** egitea, balorazio honen oinarrian ondorioztatzen denean jarraipena eta hasierako diagnostiko soziala egitea behar duen esku-hartzea beharrezkoa izan litekeela. Horretarako, ahal den neurrian, interesa duten pertsonen eta familien parte-hartzea behar izango da, baita haien babes-sarearena ere.

Pertsona edo pertsonak prestazio ekonomikorantz edota zerbitzurantz **BIDERATZEA**, edo beharrei erantzuteko egokiagoak diren prestazioen eta zerbitzuen konbinaziorantz.

Zerbitzuaren helburu nagusia pertsonen eta familiei Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuari sarbide informatua eskaintzea da, eta hala behar izanez gero, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea.

Nori zuzendua dago?

Leioan erroladatutako interesa duen edonori edo haren legezko ordezkariari.



ADINEKO PERTSONAK



Adinekoen Arloak beste administrazio baten baliabideak ere bultzatzen ditu: mendekotasunaren edo telelaguntzaren balorazioa eskatzea, adibidez.

» Etxeko laguntza-zerbitzua

🔗 Zertan oinarritzen da?

Mendekotasun-egoeran bizi den pertsonaren etxean zuzeneko arreta eskaintzen duen zerbitzu integrala da; eguneroko jardueretan laguntza ematea du xede, pertsona horren bizi-kalitatea hobetzeko. Hala, batez ere zaintza pertsonaleko funtzioak jasotzen ditu, baina horiek guztiak etxeko arretako funtzioekin osatzen dira. Hori guztia lagungarria da pertsona horiek beren etxeetan bizitzen jarrai dezaten. Familiaren atsedenerako modaltitatea barne dago.

👤 Nori zuzendua dago?

Foru Aldundiak aitortutako mendekotasun mailaren bat duten pertsonak, autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten adineko pertsonak edota arrisku-egoeran dauden edota gizarte-gatazkak bizi dituzten familiak.

» ZAINDUZ zaintzaileen laguntza zerbitzua

🔗 Zertan oinarritzen da?

Familia-ingurunean mendekotasunari arreta emateko eta mendeko pertsonak eta/edo desgaitasuna duten pertsonak zaintzen dituztenei laguntza emateko programa. Horretarako, erantzukizun publikoko jarduera, prestazio eta gizarte-zerbitzuak daude, eta haien guztien helburua da aldeberean eragitea, zainketaren kalitatea hobetzeko eta zainetak jasotzen dituen pertsonak bere inguru sozial eta familiarrean jarraitzeko.

Hiru jarduera-ildo garatzen dira:

- Mendeko pertsonen autonomia pertsonala sustatzea.
- Prestakuntza eta informazioa.
- Taldeko laguntza psikologikoa, banakakoa eta autolaguntza taldeak.

👤 Nori zuzendua dago?

Leioan erroldatuta egotea eta mendekotasun edo ezgaitasun maila bat aitortuta izatea, edo mendeko pertsonen edota ezgaitasuna duten pertsonen zaintzailea izatea.

» Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak

🔗 Zertan oinarritzen da?

Helburu hauek bete nahi ditu:

- Erabiltzailea bere inguru komunitarioan mantentzea.
- Autonomia pertsonalaren maila hobetzea, mantentzea edota modu autonomoan bizitzeko gaitasun eta trebetasunen galera prebenitzea.
- Isolamendu-egoerak saihestea.
- Seguratasun-sentimendua sendotzea.

👤 Nori zuzendua dago?

Udalerrian erroldatutako 65 urtetik gorako pertsonak, I. graduko mendekotasun-egoera dutenak, eta gizarte-zerbitzuetako langileen balorazioaren arabera, beren ostatua behar dutenak alternatiba egokirik ez dutelako, eta intentsitate txikiko laguntzak behar dituztenak, bizitza autonomoa aurrera eramateko harreman-gaitasunak mantentzeko edo garatzeko.

» Etxean laguntza kontratatzeko laguntza ekonomikoa

🔗 Zertan oinarritzen da?

Prestazio honek eguneroko jardueretan laguntzeko edo intentsitate txikiko arreta pertsonaleko zerbitzu pribatua kontratatzeko diru-laguntza ematea du xede. Diru-laguntza jasotzeko, ezinbestekoa da kontratua aurkeztea.

👤 Nori zuzendua dago?

Izaera orokorrean, prestazio honen onuradunak izan daitezke, autonomia galtzearen ondorioz, egunerokoan laguntzeko zerbitzu baten behin-behineko edo behin betiko esku-hartzea behar duten pertsonak edota familia unitateak (betiere, familiaren etxean ez badago lan horiek burutu ditzakeen inor), laguntza sare soziofamiliarrik ez badute, edo baldin badute, nahikoa ez bada.

>> Eguneko arreta-zerbitzuarekin lotutako prestazioa

📍 Zertan oinarritzen da?

Izaera ekonomikoko aldizkako prestazioa, Leioako udalerrian mendekotasun arriskua duten edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat bideratuta. Prestazioaren helburua erabiltzaileak aukeratutako Eguneko Zentro batean plazaren kostuaren ehuneko bat estaltzea da, Leioako Udalak mota honetako dispositiboak udalerrian abian jarri arte.

👤 Nori zuzendua dago?

Leioan erroldatutako eta bertan bizi diren 65 urteko edo gehiagoko pertsona orori. Onuradunak I. gradu mendekotasun balorazioaren ziurtagiria eskaini beharko du, MBB baremoan 23 eta 39 puntuen arteko puntuazioarekin.

>> Adinekoen etxeak

📍 Zertan oinarritzen da?

Establezimendu publikoak dira, egoitza-izaerarik gabekoak, adineko pertsonen kolektiboaren bizi-baldintzak hobetzen ahalegintzen direnak, euren aisialdia modu partizipatibo eta sormenezkoan bizi dezaten bultzatuz, beren zahartzaroko protagonistak izanik. Halaber, gizarte-isolamendua saihesten duten programa komunitarioekiko hurbilpena bultzatzen da. Leioak **adinekoentzako lau etxe** dauzka. Bakoiitzak zerbitzu eta instalazio desberdinak ditu:

Lau etxeek animazio soziokulturaleko zerbitzua dute, baita tabernako zerbitzua ere. Batzuek beste zerbitzu batzuk ere badituzte: ile-apaindegia, podologia eta gimnasia.

👤 Nori zuzendua dago?

- Erabiltzaileek Leioan bizi behar dute eta erretirodunak, pentsiodunak edo 60 urte baino gehiago izanik lan egiteari utzi edo aurretik erretiratu diren 55 urtetik gorako pertsonak dira, baita haien ezkontide edo bikotekideak ere.
- Bazkideak Leioan erroldatutako pertsonak eta bazkide izateko baldintzak izanik, adinekoentzako etxe jakin batean bazkide moduan izena ematen dutenak dira.

Errekalde Etxea:

Errekalde plaza,
4-5-6

94 402 23 23

Lamiako Etxea:

Langileria kalea, 64
94 464 86 50

94 480 39 10

Pinueta Etxea:

Lapurdi kalea, 1
94 464 23 51

Txorierrri Etxea:

Txorierrri auzoa, 81
94 601 18 62



>> GLL: GIZARTE LARRIALDIETAKO LAGUNTZA

📍 Zertan oinarritzen da?

Prestazio ekonomikoa hau ez da aldizkakoa, dirutan ematen da, diru-laguntza moduan. Gizarte-bazterkeriarik gerta ez dadin edo halako bazterkeria-egoerak arintzeko behar-beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonentzako dira, eta berdin dio dena delako gastua arrunta edo ohiz kanpokoa den.

👤 Nori zuzendua dago?

Nahiko baliabiderik ez dutenei eta eskakizun hauek betetzen dituztenei:

- Leioan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, eta eskabidea aurkeztu baino 6 hilabete lehenagotik gutxienez EAEko edozein udalerritan erroldatuta egon izana. 6 hilabeteko epe hori betetzen ez bada, eskatzaileak EAEko edozein udalerritan erroldatuta eta bertan benetan bizi izandakoak izango dira 5 urtez jarraian aurreko hamar urteen barruan.

- Elkarbizitza-unitatea osatzea eskaera aurkezteko data baino gutxienez urtebete lehenago (badaude salbuespen-kasuak).
- 18 urte beteta izatea. (Badaude salbuespen-kasuak).
- Alkatetza Dekretuan zehaztutako ondare-eskakizunak betetzea.

>> GL: GIZARTE LARRIALDIA

📍 Zertan oinarritzen da?

Prestazio ekonomikoa bat da, aldizkakoa ez dena, eta gizarte bazterketako egoerak saihestu, ekidin edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko eta pertsonen eta familien integrazioa sustatzeko baliabide nahikorik ez duten pertsona eta/edo familia-unitateei zuzentzen zaie.

👤 Nori zuzendua dago?

Interesa duen edonori edo bere legezko ordezkariari. Udalak, ekitaldi natural bakolizterako, eman beharreko laguntzak eta kontzeptuak eskuratzeko irizpideak erabakitzen ditu. Horrela, eskuratzeko, eskakizun zehatz batzuk bete beharko dira eta udaleko langile teknikoekin baloratu eta berrikusiko dira.



GIZATERATZEA

Gizarte Ongizateko Arloak bultzatzen ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren bazterkeriako balorazio-prozesuak.

» Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza

🗨️ Zertan oinarritzen da?

Tutoretzapeko etxebizitza ostatua emateko gizarte-zerbitzu kolektibo gisa osatzen da, baztertze-arriskuan bizi diren pertsonentzako epe labur edo ertaineko egonaldia bideratzeko. Babes-intentsitate txikiko zerbitzua da; langileen presentzia etengabekoa izan gabe, Udaleko Oinarriko Gizarte Zerbitzuetako erreferentziako teknikari baten laguntza jasotzen baita. Helburu nagusia da erabiltzaileek egoera normalizaturako trantsizio-prozesuak egitea, betiere, beren bizitza modu autonomoan garatu ahal izateko.

👤 Nori zuzendua dago?

Tutoretzapeko etxebizitzaren hartzailatzat hartzen dira adinez nagusiak diren pertsonak eta eguneroko bizitzako jardueretan autonomia dutenak; baztertze-arriskuan daudenak eta eskakizun jakin batzuk betetzen dituztenak, udaleko gizarte-lanean langile teknikariekin hartzartutako konpromisoez gain.

Ostatu-baliabidea erabiltzeko eskatzen duten pertsonak Leioako Udaleko Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu beharko dute eskabidea, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuetan (Udalaren HAZ eta Gaztelubide).

» Arreta psikosoziala eta gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzua gizarte-baztertzea jasateko arriskuan daudenentzat

🗨️ Zertan oinarritzen da?

- Beren bizitza-kalitatea hobetzeko, gizarte-eskubideak eskuratzeko, elkarbizitza hobetzeko, arreta- eta zaintza-gaitasunak garatzeko, edota modu autonomoan bizitzeko hezkuntza-laguntza edota laguntza-psikosoziala behar duten helduen arretarako zerbitzua da.
- Banaka, bikotean eta familian esku hartzen du eta hainbat talde egiten dira.

👤 Nori zuzendua dago?

Udalerrian erroldatutako helduak.

» Larrialdi-egoerarako etxebizitza

🗨️ Zertan oinarritzen da?

Larrialdi-egoerarako Etxea epe laburrerako ostatua behar duten pertsona edota bizikidetzaren unitate bideratuta dago, gizarte arloan larrialdi edo premiak eragindako ostatu-gabeziari aurre egin ahal izan diezaioten.

👤 Nori zuzendua dago?

Eskakizun jakin batzuk betetzen dituzten elkarbizitza-unitate edo pertsona. Gainera, egoera hauetakoren batean egoteagatik, etxebizitza-behar larria dutenei:

- Etxola, kaseta, bizitoki informal edo behin-behineko eraikinetan bizi izatea, eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenagotik edo luzaroagoan.
- Bizigarritasun baldintza okerrak edo higijene-osasun arloko gabezia larriak dituen etxebizitza batean bizi izatea.
- Hondamendi natural (uholde edo antzekoak) baten ondorioz ohiko etxebizitza galdu izana.
- Ezbehar (sutea, leherketa edo antzekoak) baten ondorioz ohiko etxebizitza galdu izana.
- Ostatu-beharra duen pertsona edo familia-unitatearen ohiko etxebizitza berehala eraitsi edo hustea dakarren aurri-adierazpena indarrean egotea.
- Eskatzaileen segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan jar dezakeen familiarterko gatazka larria egotea, epe laburrera bestelako ezein baliabiderekon konpondu ezin daitekeena.



HAURRAK ETA FAMILIA

>> Esku-hartze sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzua

🗨️ Zertan oinarritzen da?

Haur eta gazteen arrisku-egoeren **antzemate goiztiarrerako eta aurre hartzeko** zerbitzua da, egoera horiek haur eta gazteen moldatu ezina edo babesgabetasun edota abandonu-egoerak sor ditzaketenean, baliabide eta trebetasun pertsonalak, familiarrak eta inguruneekikoak sustatuz beren berezko ingurunean.

Hezkuntza, afektibitate... arloetako oinarritzko zailtasunak dituzten **gazteei eta haurrei** emandako zuzeneko arretan oinarritzen da, babesa, orientabidea eta gurasoentzako laguntza garatzeko hezkuntza-neurriak garatuz, horiek beren gurasotasun-gaitasunak gara ditzaten.

Era berean, Leioako haur eta gazteengan eragina duten **urritasun eta gabezia sozialei aurre hartzea eta haiek arintzea** du helburu, baita onuradunen gaitasunak garatzea ere.

Lana **udaleko gizarte-zerbitzu, eragile eta boluntarioekin lankidetzan lan** eginez gauzatzen da, talde horrek

komunitatearen barruan duen bizi-kalitatea hobetzeko asmoarekin.

👤 Nori zuzendua dago?

Adingabeok udalerrian erroldatuta dituzten familiak.

>> Adingabeokentzako tratamendu psikopedagogikoa

🗨️ Zertan oinarritzen da?

Udalerriko adingabeek arazo psikologiko edo emozionalen ondorioz jasotzen duten tratamendu terapeutikoa ordaintzea da laguntzaren helburua, eskolako ikaskuntza egokia oztopatuta dagoenean, eta sare publikoak betetzen ez duen kasuetan.

👤 Nori zuzendua dago?

Leioan erroldatutako familiak, 6 eta 12 urte bitarteko edo lehen hezkuntzan eskolatutako adingabeak dituztenak; adingabeak horiek osasun sare publikoko edota hezkuntzako txosten batek bermatutako izaera emozionaleko edo psikologikoko zailtasunak dituztenean.

Gainera, bermatu beharko dute deialdiaren oinarrian biltzen diren baliabide ekonomikoak ez dituztela gainditzen.



INDAKERIAREN BIKTIMA DIRENEI ARRETA

>> Abegi-etxea (Indarkeriako Biktimen Arreta)

🗨️ Zertan oinarritzen da?

Abegi-etxea premiazko gizarte-zerbitzua da, honako hauek eskaintzeko:

- Babesgabetasun-egoeran dauden emakumeei behin-behineko harrera ematea. Zerbitzua jasotzeko aukera izango dute bakarrik dauden emakumeek zein beren mende norbait dutenek (seme-alaba adingabe zein adinez nagusiak edota menpekotasuna duten pertsona helduak).
- Harreran hartutako emakumeei euren egoera pertsonalaren inguruan hausnartzeko espazioa eta denbora ematea, eta euren etorkizuneko bizimodua zer norabidetan bideratu birpentsatzen laguntzea.
- Harreran hartutako emakumeen autonomia pertsonala suspertu eta sustatzea, eta segurtasun-sentimendua sendotzea.
- Gizarteratzen lagunduko dieten oinarritzko baliabideak erraztea eta aholkularitza eskaintzea.

👤 Nori zuzendua dago?

Abegi-etxebizitza: Harreran jasotzeko aukera izango dute etxeko indarkeriaren ondorioz babesgabetasun-egoeran dauden emakume guztiek (adinez nagusiak nahiz adingabe emantzipatuek); dela bakarrik, dela beren mende norbait badute (seme-alaba adingabe zein adinez nagusiak, edota menpekotasuna duten pertsona helduak). Hainbat eskakizun bete behar dira.

Ostatu-baliabidea erabiltzeko eskatzen duten pertsonak Leioako Udaleko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu beharko dute eskabidea, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuetan (Udalaren HAZ eta Gaztelubide).



BERDINTASUNA



Leioako Udalak 25 urte baino gehiago daramatza udalerrian emakumeen eta gizonen berdintasunerako programak eta ekintzak eginez eta horiek bultzatuz, betiere, emakumeen egoera hobetzeko.

Berdintasun Sailak modu aktiboan koordinatu du Berdintasunaren Euskal Legearekin bat etorri berdintasunerako lau plan martxan jarzea. Horiek Udaleko sail guztiak eta Leioaren eta herritarren (oro har) garapenerako eragile sozialak eta

ekonomikoak (emakumeen elkarteak, elkarte feministak ikastetxeak...) biltzen dituzten ekintzak eta programak biltzen dituzte.

Plan honen helburu orokorra da Udaleko kudeaketan generoaren ikuspegia gehitzea berdintasuneko tokiko politikak abian jarrita. Neurri horiek aukeren eta emaitzen berdintasun erreala eta eragingarria bermatzeko erronka bete beharko lukete.

- Udaleko langile politikoak eta teknikoak gaitzera zuzendutako prestakuntzak egiten dira.
- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak eta programak egiten dira.
- Hezkidetzaren benetako berdintasunerako bidean tresna estrategikoa eta beharrezkoa da. Berdintasun Arloak, udaleko beste arlo batzuekin elkarlanean, bere planak aberastea eta ugaritzea xede duen programa garatzen du urtero, eta gero Leioako ikastetxei eskaini.
- Emakumeen parte-hartze sozio-ekonomiko handiagoa bultzatzea. Horregatik, 2020an, Leioak emakumeentzako ahalduzko eskola, Laket, jarri zuen abian.

Nesken eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa da lehentasunetako bat. Horrela, urtero, azaroaren 25aren inguruan antolatzen diren gain, hainbat kanpaina edota sentsibilizazio-programa egiten dira. Horietan, emakumeen kontrako indarkeria hainbat modutan agertzen den egiturazko indarkeria gisa ikusten da. Adinkeria edo jaietako eraso sexistak dira horietako batzuk.

2007tik, Leioak erakunde mailako koordinazio-protokoloa du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko. 2016an eguneratu zuten eta orain berriro ari dira ebaluatzen.


Nori zuzendua dago?

Herritar guztiei

Berdintasun plana



II. Protokoloa



Leioan gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzen duten jardueretarako dirulaguntzak

Zertan oinarritzen da?

Leioan garatzen diren eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak gainditzea xede duten jarduerak edo programak.

Nori zuzendua dago?

Indarrean dagoen Udaleko Berdintasun Planarekin bat datozen jarduerak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko Emakumeen Elkarteek edota erakundeek eska diitazakete laguntzak edota izan daitezke laguntzen onuradunak.

- Helbide soziala Leioan izatea
- Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan eta Leioako Erakundearen Udalen Erregistroan izena emanda egotea, eta jarduerak arloa Leioan izatea.



INMIGRAZIOA



2019ko urrian, Leioako Udalak "Immigrazio eta Kulturarteko Bizikidetzako II. Plana, 2019-2023" onartu zuen, gizarte-kohesioa hobetzeko eta kulturen arteko bizikidetzara sustatzeko.

Dokumentu honen bidez, Udalak ekintza-ildoak ezarri eta toki-administrazioaren jarduna hobetu nahi du, beste gizarte-eragile batzuekin eta herritarrekin batera, harrera-gizartearen inklusioa eta kultura-aniztasunaren kudeaketa lortzeko.

Hauek dira Planaren helburu nagusiak:

- Etorkinen taldeko pertsonen dagokienez, udal-jarduketan eraginkortasuna hobetzea.
- Etorkinak gizarteratzeko prozesuak garatzea, kulturarteko espazioak sustatuz bertakoen eta etorkinen arteko interakzioak eta bizikidetzarako.
- Orain eta etorkizuneko ghetizazio sozialaren arriskua edo edozein zentzutan taldekako bidegabekeria-sentimenduen sorrera minimizatzea.

Planaren helburuak betetzeko egiten ari diren ekintzen baitan, Leioako Etorkinen Behatokia jarri da martxan.

Nori zuzendua dago?

Azken finean, ekintza horiek, zuzenean edo zeharka, Leioako herritar guztiengana iristen dira.

Leioako Udalak gida bat argitaratu du 7 hizkuntzatan. Gida horretan, modu erraz eta eskuragarrian jasotzen da edozein pertsonarentzako informazio interesgarria.

2019-2023rako kulturarteko izaera duten immigrazio eta Elkarbizitza Planean aurrez ikusitako jarduketak 3 ardatzen inguruan garatzen dira:

1. Harrera
2. Sentsibilizazioa eta kulturarteko elkarbizitza
3. Erakunde mailako antolaketa

Gida:



ADIZIOAK



SUBSTANTZIAREN BATEKIN LOTUTAKO ETA SUBSTANTZIARIK GABEKO ADIKZIOEKIN LOTUTAKO KOMUNITATE ARRETA ZERBITZUA

Leioako Udaleko adikzioen prebentzio zerbitzuko proiektu berri bat jarri da martxan eta honako hau du helburu:

- Herritarrei adikzioen fenomenoaren inguruan informazioa, sentsibilizazioa eta orientazioa eskaintzea.
- Adikzio motaren batekin hasi, eta kontsumoa utzi nahi duten pertsonen arreta eskaintzea.
- Substantziak kontsumitzen dituzten seme-alaba nerabeak dituzten familiei arreta eskaintzea.
- Seme-alaba nerabeak substantziarik gabeko adikzio-arazoekin (internet, kirol-apustak, zorizko jokoak, bideo-jokoak...) dituzten familiei arreta eskaintzea.

Nori zuzendua dago?

- Leioako biztanleria, oro har.
- Lehen Hezkuntzako ikasleak, Bigarren Hezkuntzakoak, Batxilergokoak *Prestakuntza Zikloak, Lanbide Hastapenak, OHL
- Lehen Hezkuntzako ikasleak, Bigarren Hezkuntzakoak, Batxilergokoak, Prestakuntza Zikloak, Lanbide Hastapenak, OHL
- Leioako Udaleko familiak
- Haur-gazte esparruarekin lotutako profesionalak (ikastetxeak, Guraso Elkarteak, EISE, Gaztegunek, osasuna...).

Adikzioen prebentzio komunitarioko programen eta talde teknikoaren zerbitzuak garatzen dituen proiektuak eta programak Leioako udaleko adikzioen prebentzioko tokiko Planean kokatzen dira. Era berean, **Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Planaren** (2017-2021) eta **Euskadiko Osasun Planaren** (2013-2020) jarraibideak betetzen ditu.

Adikzioen arloan egindako udal esku-hartzeen eta jarduketan eraginkortasuna handitu nahi dute, babes-faktoreak sendotuz eta drogen kontsumoaren aurrean arrisku-faktoreen eragina murriztuz.

» Programak hiru jarduketa esparruren arabera antolatzen dira:

1. Eskola Esparrua

Hezkuntza-programak (adikzioen eta arrisku egoeren prebentzioa) ezartzeko eta garatzeko helburuarekin.

2. Familia Esparrua

Familiara bideratutako esku-hartzeak

3. Esparru Komunitarioa

Komunitatera, herritarrengana edo antolatutako taldeengana bideratutako esku-hartzeak (elkartek...).

Tokia: Sabino Arana kalea, 67 (lokala)

Harremana: 688 63 15 98 (Maite)

Arreta-ordutegia: Asteazkenak, 15:00etatik 17:30era



GARAPENERAKO LANKIDETZA



Zertan oinarritzen da?

Zerbitzuak hauek biltzen ditu:

- Urteko deialdi orokorra lankidetzaz esparruan lan egiten duten erakundeentzat eta hirugarren herrialdeetan proiektuak garatzen dituztenentzat. Aurrekontua agortu arte, puntuazio handienetik txikienera arteko norgehiagokaren arabera aurkeztu diren erakundeei zuzenduta dago.
- Garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko dirulaguntzak: Leioara udako oporraldiak igarotzera adingabeak ekartzen dituzten familiak eta erakundeak babestea. Aldi baterako harrerarako urteko deialdia da.
- Dirulaguntza nominatiboen bidez, EDEX erakundearekin hitzarmen bat lortu da Dominikar Errepublikan proiektu bat garatzeko.
- Hitzarmena EUSKAL FONDOAren, Saharari laguntzeko urteko proiektuak egiteko.

Nori zuzendua dago?

Interesa duen orori.

>> Garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako haurrak aldi baterako hartzeko dirulaguntzak

Zertan oinarritzen da?

Dirulaguntza honek helburu bikoitza du:

1. Leioako pertsoneri edo familia-unitateei, garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako 6 urtetik 18 urtera arteko haurrak udako oporraldietan aldi baterako hartzen dituztenei, laguntza ekonomikoak ematea.
2. Haurren eskubideak eta laguntza humanitarioa sustatzeko helburuarekin programak antolatzen dituzten elkarteei laguntza ekonomikoak emateko modua arautzea, garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat gertatu den herrialdeetako (Sahara, Ukraina, Bielorrusia, Errusia...) haurren egoera soziosanitarioa eta bizi-kalitatea hobetu ahal izan ditzaten Bizkaian dauden bitartean.

Nori zuzendua dago?

Leioan haur horiek aldi baterako hartzen dituzten pertsoneri edo familia-unitateei eskuratu ahaliko dituzte, betekizun hauek betetz gero.

Era berean, EAEko edo Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein erakunde publikoko dagokion erregistroan formalki izena emandako edo eraturako eta eskaturako eskakizunak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteek ere eskuratu ahal izango dituzte.

Gutxienez urtebeteko esperientzia eduki beharko dute garapen-bidean dauden edo zuzenean edo zeharka hondamendiren bat izan duten herrialdeetako adingabeak aldi baterako hartzeko programak kudeatzen. Gainera, programa honetan, aldi baterako harreran, Leioako pertsona edo familia-unitate bakoitzeko gutxienez adingabe batek hartu behar du parte.

>> Garapenerako lankidetzaz proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia

Zertan oinarritzen da?

Deialdi honek herrialde txiroetuan gizakiaren garapenerako lankidetzaz ekintzak egiteko laguntzak arautzen ditu; ekintzek eraldaketa ekonomikoa, soziala, politikoa, kulturala, ingurumenekoa eta emakume eta gizonen arteko harremanetan ere eraldaketa sortu behar dute. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek bultzatutako ekintzak izango dira, GGKE-en, gizarte mugimenduan, fundazioetan eta antzekoetan, eta horien lehentasunezko xedea garapenerako lankidetzaz izango da, eta lehentasuna dute Latino Amerika, Afrika eta Asian gauzatzen diren ekintzak GJHan ezarritako irizpide eta helburuak kontuan izanik.

Nori zuzendua dago?

EAEko edo Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein erakunde publikotako dagokion erregistroan eraturako edo inskribaturako erakundeak, deialdi hau argitaratu baino bi urte lehenago.

Era berean, egoitza zentrala edo ordezkari itza iraunkorra Bizkaiko Lurralde Historikokoan izan beharko dute eta estatutuaren islatua agertu beharko da jardueraren nagusia garapenerako lankidetzaz esparruan egiten dela. Jardueraren nagusia garapenerako lankidetzaz dela irizten da eskatzaileak antolatuta horretarako aurrekontuaren % 75 baino gehiago zuzentzen duenean helburu horretara.



BESTE BATZUK

LEIOAKO UDALEKO GIZARTE ONGIZATEKO ARLOKO FAMILIARI, GENERO-INDARKERIARI ETA ATZERRITARTASUNARI BURUZKO AHOALKULARITZA JURIDIKOA

Zertan oinarritzen da?

Zerbitzu honen helburua Gizarte Ongizateko Arloan izaten diren kontsulta juridikoei irtenbide ematea da. Horretarako, familia, genero-indarkeria eta atzerritartasun gaietarako dagoen informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio-programa erabiltzen da, udalerrian erroldatuta dauden pertsona guztientzat Udal gizarte zerbitzuetatik, zerbitzu juridiko honetara bidali dituztenak, alegia.

Gai hauek biltzen ditu:

- Gai zibilei buruzko informazioa eta orientazioa pertsona erabiltzaileentzat.
- Aholkularitza juridikoa genero-indarkerian.
- Aholkularitza familia-eskubidean.
- Osoko aholkularitza juridikoa atzerriko gaietan.
- Erakundeekiko harremanak (prestazioen kudeaketa, osasun- eskubideak, eskolatzea...).

Nori zuzendua dago?

Udalerriko auzokideak, adinez nagusiak, goian aipatutako gaietan aholkularitza juridikoa behar dutenak

» Osasunaren sustapen eta prebentzio arloko ekintzak eta programak finantzatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak

Zertan oinarritzen da?

Dirulaguntza honen helburua da honakoen inguruko ekintza eta programak finantzatzeko laguntza ekonomikoak arautzea: bizi-ohitura osasungarrien sustapena, zahartze aktiboa, edota anomalia genetikoak, garapen-arazoak, gaixotasun arraroak eta abar izateagatik bereziki babesgabeak diren kolektiboekin lan egitea eta abar, betiere, Leioako udalerrian garatzen badira, edota kanpoan garatuta ere, bazkideen artean Leioako herritarrak dituztela egiaztatzen duten elkarte, fundazio edo bestelako irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatuta.

Nori zuzendua dago?

Elkarteek, fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuek eskuratu ahal izango dute. Programak eta ekintzak Leioan bertan garatu beharko dira, edota kanpoan garatuta ere, bazkideen artean Leioako herritarrak dituztela egiaztatzen duten elkarte, fundazio edo bestelako irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatuta egon beharko dute.

BESTE BATZUK



» Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak: Lizentzia- eta erregistro-eskaera

Zertan oinarritzen da?

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren sailkapenean jasotako animaliak izateko udal-lizentzia eta dagokion udal-erregistroan izena emateko eskaera da.

Nori zuzendua dago?

Adinez nagusia den, Leioan erroldatuta dagoen eta animalia horien titularra, legezko ordezkaria eta/edo erakundea, den edonor.

» Animaliak biltzeko udal zerbitzua

Zertan oinarritzen da?

Etoko animalientzako udal-zerbitzu hau Leioa osoan eskaintzen da eta, besteak beste, eteko animaliak jasotzea, kudeatzea eta bideratzea, eta jasotako animaliei ostatua eta zaintza ematea biltzen du.

Nori zuzendua dago?

Jatorrizko proposamenaren arabera.

info +:

udaltzaingoa@leioa.net
gizartezerbitzuak@leioa.net
Udaltzaingoa: 94 400 80 21
Gizarte Zerbitzuak: 94 480 13 36

» HAA plana: harrapatzea, antzutea eta askatzea

Zertan oinarritzen da?

Plan honen helburu nagusia tratu etikoaren bidez udalerriko kolonia felinoak kontrolatzea da eta, horren bidez, ezarritako baldintzak onartu ondoren, administrazio baimena eskuratuko dute dagoeneko baimenen bat kudeatzen ari diren edo kudeatu nahi duten pertsonak.

Nori zuzendua dago?

Interesa duten pertsonak Animaliak Babesteko arloarekin harremanetan jarri ahal izango dute animalienbabesa@leioa.net e-mailaren edo 94 480 13 36 telefono-zenbakiaren bidez.

info +:


udaltzaingoa@leioa.net
gizartezerbitzuak@leioa.net
Udaltzaingoa: 94 400 80 21
Gizarte Zerbitzuak: 94 480 13 36

Animalien babesa saila


animalienbabesa@leioa.net
94 480 13 36



**EGOITZA
ELEKTRONIKOA:**



UDAL WEBGUNEA:



 94 480 13 36

 gizartezerbitzuak@leioa.net

Inaurratzaga 1, behea 48940
Leioa

